

PYRENAICA

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA | FEDERACIÓN VASCA DE MONTAÑA



GUZTIONA, GUZTIONTZAT 1926-2026

Pyrenaica 1926-2026 | Lankideen ahotsak | Pyrenaicaren erraiak | Noticias de las alturas
Zuzendariekin txangoan | Antoto | Pyrenaica eta euskara | Ilunabar arrosak
La familia de Pyrenaica | Una mirada al pasado




PYRENAICA^k

Te oferta la
Eskaintzen dizu

Historia testimonial del Montañismo Vasco

45€
(tres tomos/hiru liburuki)

Tres tomos escritos por **ANTXON ITURRIZA** idatzitako hiru liburuki



TOMO I:
El descubrimiento de
la montaña (1848 - 1936)
Páginas 240 orrialde

TOMO II:
De los Pirineos
al Himalaya (1939 - 1980)
Páginas 284 orrialde

TOMO III:
Tiempos modernos .
El Alpinismo del siglo XXI
Páginas 240 orrialde


Ingresa el importe en la c/c 3035-0072-00-0720030006 de Laboral Kutxa
y envía a contacto@pyrenaica.com:
Nombre, DNI, domicilio, teléfono y correo electrónico.

Laboral Kutxako 3035-0072-00-0720030006 k/k dirua sartu
eta contacto@pyrenaica.com helbidera bidali:
Izen deiturak, NAN zenbakia, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

Más información / informazio gehiago:
www.pyrenaica.com

Fondo

50 %



Con los objetivos de rentabilidad de un fondo.

Depósito

+ 50 %

Y la remuneración de hasta 2,81 % TAE* en un depósito.

TIN primeros 12 meses 2,10 %

TIN últimos 3 meses 5,50 %**

¿Ahorrar o invertir? Elígelo todo.

FONDO + DEPÓSITO 50/50

Hay otra forma

Inversión mínima 4.000 €, destinando un 50 % al Depósito "Plazo a 15 meses" y un 50 % a un Fondo de Inversión** · Oferta válida hasta el 30-06-2026 · Horizonte temporal de los fondos de inversión no inferior a 3 años · Más información en laboralkutxa.com

(*) El depósito incluido en la campaña es el depósito "Plazo a 15 meses", donde la liquidación de intereses se realiza con carácter mensual y su contratación está sujeta al cumplimiento del requisito descrito en el párrafo (**Requisito de contratación). Los primeros 12 meses se aplicará un interés nominal del **2,10 % TIN** y, en los últimos 3 meses, si se cumple la condición que se describe en el párrafo (***)Requisito de permanencia, se aplicará un interés del **5,50 % TIN (2,81 % TAE)**, en caso contrario, se aplicará el **2,10 % TIN (2,12 % TAE)**. **Ejemplo de liquidación para un Depósito a 15 meses de 100.000 euros bajo el supuesto de que el cliente o la cliente mantiene el mismo hasta vencimiento: liquidará 175 euros de intereses brutos mensuales en los primeros 12 meses y 458,33 euros de intereses brutos mensuales en los últimos 3 meses (TAE 2,81 %), en total 3.474,99 euros. En caso de no cumplir la condición de permanencia requerida en el párrafo (***)Requisito de permanencia, se liquidarán 175 euros brutos mensuales durante las quince mensualidades (TAE 2,12 %), en total 2.625 euros.** Podrás cancelar totalmente tu depósito "Plazo a 15 meses" en cualquier momento. LABORAL Kutxa podrá acceder a dicha cancelación aplicando una deducción del 4 % anual sobre el principal que se reintegre por el período que medie entre la fecha de cancelación y el vencimiento pactado, no pudiendo rebasar dicha deducción, en ningún caso, el importe de los intereses devengados hasta la fecha. (**) **Requisito de Contratación:** para poder contratar el depósito "Plazo a 15 meses", la persona titular o alguna de las personas titulares deberá realizar una aportación a un Fondo de Inversión cuya titularidad coincida con la del depósito "Plazo a 15 meses". El importe de la aportación deberá ser igual o superior al importe por el que se formaliza el depósito. Quedan excluidas de esta oferta las aportaciones realizadas en los Fondos de Inversión de la gama Horizonte, los Fondos depositados en el Banco Inversis, el Fondo LK Ahorro y el LK Ahorro Corto Plazo, así como las aportaciones procedentes de otros Fondos de Inversión distribuidos por Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito. (***) **Requisito de permanencia:** para acceder al **5,5 % TIN** en los últimos 3 meses, la aportación en el Fondo de Inversión que da derecho a la contratación del depósito "Plazo a 15 meses" deberá mantenerse al menos hasta el 28-02-2027. La contratación de este depósito excluye la posibilidad de contratar por separado el depósito "Plazo a 15 meses". Los Fondos de Inversión incluidos en esta oferta combinada si se podrán contratar por separado. Puedes consultar los folletos informativos de todos los fondos y los documentos con los datos fundamentales para la persona inversora (DFI) en www.cnmv.es, así como en www.laboralkutxa.com y en cualquier oficina de LABORAL Kutxa.

CÓMO PUBLICAR EN PYRENAICA

Artículos: los artículos, en euskara o castellano, deben estar relacionados con las disciplinas de la EMF-FVM o con la montaña en general (medio ambiente, flora y fauna, historia del montañismo, etc). Básicamente hay que enviar el texto, la presentación del autor/a, las fotos a la máxima resolución posible y los posibles tracks. Pueden consultarse todos los detalles en la normativa de publicación de artículos, en la web pyrenaica.emf.eus

Fotografías: se enviarán como máximo cuatro fotografías digitales relacionadas con la montaña. Deben ajustarse a la normativa de Pyrenaica (ver en pyrenaica.emf.eus).

Los envíos de artículos y fotografías deben incluir nombre y apellidos del autor/a, dirección, email y tfno de contacto, y deben hacerse a contacto@pyrenaica.com

Blog: debe solicitarse el acceso en contacto@pyrenaica.com

CONCURSO DE ARTÍCULOS DE MONTAÑA

Participan los artículos en euskara o castellano que se publiquen en Pyrenaica a lo largo del año, seleccionados entre todos los recibidos. Se otorgarán tres premios.

CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE MONTAÑA

Participan las fotografías que se publiquen en Pyrenaica a lo largo del año, excepto las que forman parte de artículos. Se otorgarán dos premios.

CONCURSO DEL BLOG PYRENAICA

Participarán todas las colaboraciones enviadas al blog a lo largo del año. Se premiará la entrada con un mayor número de visitas.

NOLA ARGITARATU PYRENAICAN

Artikuluak: artikuluak, euskaraz edo gaztelaniaz, EMF-FVMren diziplinekin edo mendia-ekin oro har (ingurumena, flora eta fauna, mendizaletasunaren historia, eta abar) lotuta egon behar dute. Funtsean, testua, egilearen aurkezpena, argazkiak ahalik eta bereizmen handienekin bidali behar dira, baita litezkeen trackak ere. Xehetasun guztiak artikuluak argitaratzeko araudian kontsulta daitezke, pyrenaica.emf.eus webgunean.

Argazkiak: mendiarekin lotutako lau argazki digital bidaliko dira gehienez. Pyrenaica araudiari egokitu behar zaizkio (ikus pyrenaica.emf.eus).

Artikuluak eta argazkiak bidaltzean, egilearen izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa adierazi behar dira. Helbide honetara bidali behar dira: contacto@pyrenaica.com

Bloga: contacto@pyrenaica.com helbidean eskatu behar da sarbidea.

MENDIKO ARTIKULUEN LEHIAKETA

Pyrenaican urtean zehar argitaratu diren euskarazko edo gaztelaniazko artikuluak parte hartuko dute, jasotako artikulu guztien artean aukeratuta. Hiru sari emango dira.

MENDIKO ARGAZKIEN LEHIAKETA

Pyrenaican urtean zehar argitaratu diren argazkiek parte hartuko dute, artikuluetako argazkiek izan ezik. Bi sari emango dira.

PYRENAICA BLOGAREN LEHIAKETA

Blogera urtean zehar bidalitako kolaborazio guztiek parte hartuko dute. Bisita kopuru handieneko sarrerari emango zaio saria.



Xabi Mujika

GANADOR EN CASTELLANO DEL CONCURSO DE RELATOS
Carlos González

KONTAKIZUN LEHIAKETAREN EUSKARAZKO IRABAZLEA
Eneko Xabier Arregi Bengoa

NOTICIAS DE LAS ALTURAS

UN RECORRIDO POR LAS REVISTAS DE MONTAÑA

Paulo Etxeberria



Actualidad Berriak



68 LA FAMILIA DE PYRENAICA

74 UNA MIRADA AL PASADO

78 SKIMO Y ESCALADA
Javier Antúnez

80 MENDI LASTERKETAK
Alberto Mella Garate

82 NOTICIAS EMMOA ALBISTEAK

83 EMF BERRIAK · NOTICIAS FVM

88 MEKNF BERRIAK · NOTICIAS FNDME

89 PUBLICACIONES · ARGITALPENAK

90 AUDIOVISUALES · AUDIOBISUALAK

91 XAVIMOUNTAIN

PUBLICACIÓN TRIMESTRAL DE
EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Se publica desde 1926

ABRIL-MAYO-JUNIO
N.º 303 - 2ª de 2026

Edita: Euskal Mendizale Federazioa

Presidente: Ricardo Hernani

Director: Paulo Etxeberria Ramírez

Dépósito Legal: BI-858-1979
ISSN: 0212-5676

© PYRENAICA

Equipo de Redacción: Begoña
Fernández, Ioritz Gonzalez, Iñigo
Jauregui, Xabi Mujika, Iñigo Santxo,
Iratxe Osoro y Fernando J. Pérez.

Administración: Gotzone Rodríguez
Redacción, Administración y Publicidad:
Julian Gayarre, 50 - 48004 Bilbao
Teléfono: 944 598 102

Horario: De lunes a miércoles
de 16:00 a 19:00 horas.

Diseño, maqueta y preimpresión: SUA EDIZIOAK
Imprime: Leitzaran Grafikak
Embolsado: Publimark



E-mail: contacto@pyrenaica.com
Facebook: @RevistaPyrenaica
Instagram: @revista.pyrenaica.aldizkaria

La propiedad intelectual y el copyright de los textos y fotografías pertenecen a sus autores/as por lo que, salvo acuerdo expreso con ellos/as o con Pyrenaica, queda prohibida toda reproducción total o parcial de los mismos.

Testu eta argazkien jabetza intelektual eta copyright-a egileenak dira, beraz egile edota Pyrenaicaren baimenik gabe, debekatuta dago artikuluen zati baten edo erreproduzio osoa egitea.

pyrenaica.emf.eus

Azaleko argazkia:
Geroa, iragana baino hobea (César Llaguno)

[illegible]

LA MEMORIA DE UN PUEBLO MONTAÑERO

"Cuando los años pasen, al hojear la colección de Pyrenaica, sentiremos las más dulces evocaciones con el recuerdo de días intensamente felices pasados en la montaña 'lejos del mundanal ruido'. Pyrenaica, sin pompas literarias, sencilla, como nuestros hábitos, será la memoria colectiva que vamos a escribir entre todos".

Así versa el párrafo-idea que siempre nos gusta recordar del editorial publicado en el primer número de esta revista hace un siglo. Esa 'memoria colectiva' del montañismo vasco es la que quiero reivindicar en estas breves líneas.

A lo largo de estos cien años han pasado por las páginas de la revista más de 1400 personas que han aportado artículos y fotografías. Fieles a la idea fundacional de escribir esa memoria entre todas y todos, la labor de creación del contenido se ha llevado siempre a cabo de manera voluntaria y altruista. Tantos nombres no caben en una página, pero aquí al lado podéis encontrar una amplia muestra de esas personas. Mi agradecimiento sincero desde aquí a todas ellas, que dedicaron parte de su tiempo libre a construir la memoria de un pueblo.

Un pueblo al que le gusta ir al monte y, al mismo tiempo, leer sobre el monte. Decenas de miles de lectoras y lectores han dado sentido a una revista *amateur* que acaba de cumplir cien años. Como director de la revista me sigue alegrando la vida recibir correos electrónicos de personas federadas que, con mucha delicadeza, escriben para decirnos que no han recibido el último número de la revista y, al cabo de unos días, nos confirman que ya les ha llegado, "¡es que me ha podido la impaciencia!".

Como correa de transmisión entre creación y lectura, varias decenas de personas han formado parte del equipo de redacción de la revista, con el cometido de seleccionar los contenidos, revisarlos y darles la forma final. Las personas encargadas de la dirección de Pyrenaica, han debido además gestionar, estoy seguro que con mucha mano izquierda, una publicación tan *sui generis* como la nuestra.

La memoria (incluida la colectiva) se vuelve frágil con el paso del tiempo. En ese sentido quiero destacar la hemeroteca digital de nuestra revista que, por extensión y accesibilidad, se ha convertido en uno de los repositorios más importantes del mundo en el ámbito de la montaña. Os invito a visitarla, porque estoy seguro de que encontraréis vivencias y reflexiones que podréis hacer vuestras.

Seguiremos disfrutando de días felices en la montaña, lejos del mundanal ruido, y seguiremos contando y leyendo esas experiencias que nos han hecho ser lo que somos.

DIRECTOR DE
PYRENAICAPYRENAICAKO
ZUZENDARIA

Paulo Etxeberria Ramírez

HERRI MENDIZALE BATEN MEMORIA

"Cuando los años pasen, al hojear la colección de Pyrenaica, sentiremos las más dulces evocaciones con el recuerdo de días intensamente felices pasados en la montaña 'lejos del mundanal ruido'. Pyrenaica, sin pompas literarias, sencilla, como nuestros hábitos, será la memoria colectiva que vamos a escribir entre todos".

Horixe da, hain zuzen ere, duela mende bat aldizkari honen lehen zenbakian argitaratutako editorialeko paragrafo-ideia, oso gogokoa duguna. Euskal mendizaletasunaren 'memoria kolektibo' hori aldarrikatu nahi dut lerro hauen bidez.

Azken ehun urte horietan, 1400 pertsona baino gehiagok kolaboratu dute aldizkariaren orrialdeak hezuramituz; artikulua eta argazkiak eskainiz. Aldizkariaren edukia sortzeko lana borondatezkoa eta altruista izan da beti, oroitzatzen hori guztion artean ontzeko fundazio-ideiari leialki jarraituz. Ezinezkoa da orrialde batean izen guztien zerrenda egitea, baina hementxe ondoan daukazu pertsona horien lagin zabal bat. Nire esker onena eta zintzoena guztioi, aisialdia herri baten oroimena eraikitzen eman duzuen guztioi.

Mendira joan eta, aldi berean, mendiari buruz irakurtzea gustatzen zaion herria da gurea. Hamar-naka mila irakurlek zentzua eman diote ehun urte bete berri dituen aldizkari *amateur* bati. Aldizkariaren zuzendaria naizen aldetik, pertsona federatuen mezu elektronikoak jasotzeak pozez betetzen nau. Esaterako, aldizkariaren azken zenbakia jaso ez dutela esateko, adeitasun handiz idazten dutenek, eta egun batzuen buruan dagoeneko iritsi zaiela baieztatzen digutenek... "jasotzeko irrikaz nengoen!".

Sortze eta irakurtze transmisio katebegi gisa, dozenaka mendizalek aldizkariaren erredakzio-taldea osatu dute; edukiak hautatu, berrikusi eta itxura emanaz. Pyrenaicako zuzendaritaz arduratu diren pertsonak, gainera, gurea bezain argitalpen berezi bezain zehatza kudeatu behar izan dute, horretarako hainbat baliabide eta dedikazio pertsonal izugarria eskainiz, ziur aski.

Denboraren poderioz, oroimena ahuldu egiten da (kolektiboa barne). Zentzu horretan, gure aldizkariaren hemeroteca digitala aipatuko dut: Pyrenaica mendiaren alorrean munduko gordailu garrantzitsuenetako bat bihurtu baita, bai duen aberastasunagatik, zein duen irisgarritasunagatik ere. Hemerotekean sartzea gonbidatzen zaituztet, zeuenak egin ditzakezen bizi-penak eta gogoetak aurkituko dituzuela ziur bainago.

Mendian, egun zoriontsuez gozatzen jarraituko dugu, eguneroko zaratatik urrun, eta garena izatera eramanez gaituzten esperientziak kontatzen eta irakurtzen jarraituko dugu.

PYRENAICA 1926-2026 EHUN URTEZ EUSKAL MENDIZALEEN ELKARGUNE

Pare bat urte dira Federazioaren mendeurrena ospatu dugula. Izan ere, Euskal-nafar Alpinismo Federazioa Elgetan fundatu zen 1924ko maiatzaren 18an, eta horren memorian egindako jardueren artean, Elgetako plazan bertan bildu ginen Euskal Herriko mendizaleok 2024ko maiatzaren 18an. 1924ko egun hartan, Elgetako udaletxeko areto nagusian egindako mendi-elkarteen asanbladan, Federazioaren lehen zuzendaritza batzordea eratu zen, Antxon Bandrés Azkue presidente zela.

Handik bi urtera, lehen agintaldia amaituta, ostera ere elkarten asanblada Elgetan bildu zen. Antxon Bandrésen presidentetza berretsi eta zuzendaritza berria hautatu zen han 1926ko maiatzaren 30ean. Bada, egun batzuk lehenago kalean zen jadanik *Pyrenai-ca* aldizkariaren lehenengo alea, urtearen bigarren hiruhilekoaren data zeramana ("abril-mayo-junio"), eta gure aldizkari honen historiari hasiera eman ziona.

Katalunian 1876an Centre Excursionista de Catalunya fundatu zen, eta haren hastapenetik beretik, *Muntanya* izeneko boletín ezaguna hasi zen plazaratzen. Era berean, Frantzian, Club Alpin Français eta Société des Excursionnistes du Béarn elkarten eskutik, 1896an *Bulletin Pyrénéen* delakoa hasi zen argitaratzen. Madrilen 1913an Real Sociedad de Alpinismo Peñalara fundatu eta hurrengo urtean *Peñalara* izeneko beren aldizkaria ere plazaratzen hasi zen. Segur aski ildo berbera jarraitu nahirik, Euskal Herrian sortu berria zen Federazioan antzeko aldizkaria argitaratzeko asmoa izan zuten gure aitzindari haiek.

TESTUA



Patxi Galé


Bilboko Aldatz Gora mendizale taldeko kide, mendien lerrokatze eta katalogatze-lanetako ekintzaile eta *Pyrenai*ca-ko erredakzio-taldean ere urteak emandakoa. Lanbidez, toponimiaren ikertzailea eta, horren harira, Euskal Herriko mendien katalogoaren gainbegiratzailerak 1999ko ediziotik hona. Edonongo tontorrak tatxatzea gustuko badu ere, Pirinioak ditu bereziki maite.

PYRENAICA ALDIZKARIAREN LEHEN AROA

Esan bezala, *Pyrenai*ca-ren lehen alea kalean zen 1926ko maiatzerako. Aldizka-

riaren bultzatzailea eta lehenengo zuzendaria José Ramón Murga Ugarte bilbotarra izan zela esan ohi da, Antxon Bandrésen taldekoa Club Deportivo Bilbao delakoan. Alabaina, 1926an abiatu zen zuzendari-

tza-batzordearen barruan berehala hasi ziren arazoak sortzen. Ordura arte inork ezbaian jarri gabeko Antxon Bandrés presidentea barne-oposizioa pairatzen hasi zen. Eztabaiden ondorioz, Federazioan



1. zenbakiaren azala

1924tik diruzain izandako Félix Garbik bere kargua utzi zuen.

1928ko asanblada hurbildu ahala, agerian gelditu ziren Federazioaren antolakuntza-rako zeuden bi ereduak.

Pyrenaicaren
lehen
alea kalean zen
1926ko maiatzeko

Batetik, Antxon Bandrésena, lau lurral-deetako biltzarrekin boterea banatzearen aldekoa, baina haien gaineratik Federazioaren zuzendaritza-batzordea gordez; eta bestetik, Ángel Sopeñarena, askoz



José Ramón Murga. Bilboko Mendizaleen
Elkartearen omenaldia (1979)



Manuel de la Sota

ere eredu zentralistagoa, biltzar bakar bat izango zukeena. Ordura arte Bandrésen kolaboratzaile izandako Antonio Ferrer, José Ramón Murga eta Ángel Sopena biltzarkideek dimisioa eman zuten. Kritika latzak eta deskalifikazio gogorrak izan ziren asanbladaren aurreko egunetan bi taldeen artean, eta dimisio-emaileei "traidore" izatea leporatu zien Bandrés-ek.

Krisi horrek berehalako ondorioak izan zituen, bai Federazioan eta bai *Pyrenai-ica* aldizkariaren zuzendaritzan. Izan ere, 1928ko maiatzaren 27an Euskal Herriko mendizale taldeen asanblada izan zen Elgetan, eta bilera hartan, tentsioz betetako eztabaiden ondoren, Bandrés-ek agur egin zien mendizaleei bere karguak utzita.

1928ko asanbladaren ondorengo aldirikarian, Bandrés-ek egindako ekarpenak goraipatzean, honako hau irakur daiteke:

"No contento con esta ímproba labor, fundó PYRENAICA con el ánimo de levantar el espíritu cultural de los alpinistas y ofrecer un estadio donde se entrenará a la inquietud literaria de los jóvenes" (*Pyrenai-ica* 9, 1928-2: 33-35).

Ale horretan bertan 1928ko Elgetako asanbladaren berri ematean, zuzendaritzaren eta Federazioaren egitura-aldaketa zela eta, erabakitakoen artean, *Pyrenai-ica*ko batzorde berria osatu beharko zela aipatzen da:

"Procederá designar el Comité de PYRENAICA, con su director y tres o cuatro asesores del punto donde resida la Redacción, y un miembro ausente o presente por Delegación" (id.: 58-63).

Horrez gainera, *Pyrenai-ica*ren ordura arteko zuzendaritzaz aritzean, José Ramón Murgaren izena aipatu barik, Antxon Bandrés bera agertzen da zuzendari gisa, segur aski azken urtean irekitako zauri haien ondorioz:

"El nombramiento de las personas que en lo sucesivo han de encargarse de PYRENAICA, por cese voluntario en su dirección del señor Bandrés, quien desde la fundación venía desempeñando el cargo de director con celo y competencia irreprochables, quedó a cargo de los nuevos directivos" (id.).

Omenaldiak eta goraipamenak gorabehera, Antxon Bandrés -euskal mendizale- tasunaren aita- bigarren plano batera

pasatu zen. Hortik aurrera, lurraldeetako lehendakariak izango dira aldizkarietan aipatuko direnak eta Bizkaian Manuel de la Sota y Aburto agertuko da buru. Kargu hori ez ezik, *Pyrenai-ica* aldizkariaren zuzendaria ere izango da 1928 eta 1930 (1931) bitartean. 1930ean argitaratutako 16. aldizkaria izango da lehen aroko azkenengoa. Lau aleren ordez, urtekari bakarra atera zen, 120 orrialdekoa, eta hurrengo lau urteetan etenaldia izan zuen *Pyrenai-ica* aldizkariak.

BIGARREN AROA

1930 eta 1935 arteko etenaldiaren kausarik aipatuena garai hartako giro politikoa izan da: 1930eko urtarrilean, Miguel Primo de Riveraren dimisioaren ondorioz, Alfontso XIII.aren monarkia konstituzionala egonkortzeko saio batzuk egin ziren, baina ez zen giroa baretzerik lortu. Abenduan Errepublikaren aldeko altxamendua gertatu zen Jakan eta, momentuan itzali bazen ere, 1931ko apirilean, II. Errepublika aldarrikatu zen, udal hautes-

kundeetan fronte popularrak lortutako emaitzei balio plebisztarioa emanda, monarkia eta errepublikaren artean hautua egiteko. Espainian bi bando nagusien arteko konfrontazioa gero eta nabarmenagoa zen eta 1934ko urrian Asturiasko langileen iraultzak ere ez zuen giroa baretzen lagundu.

1930 eta 1935 arteko etenaldiaren kausarik aipatuena garai hartako giro politikoa izan da

1935eko apirilean plazaratu zen *Pyrenaica*ren 17. alea, bigarren aroko lehenengo. Haren eragilea, Federazioaren lehen-



Pantxo Labaien

dakari berria izan zen, Francisco María Labayen Toledo (Pantxo Labaien), eta bera

agertzen da zuzendari gisa hurrengo alean eta 1936an argitaratu zen 19.ean ere. Aro horretako azkenengoa izan zen, Gerra Zibilak etenaldi luzea ekarriko baitzion aldizkariari.

Aro hartako giro soziopolitikoaren isla, eta adiskidetzearen aldeko aldarri gisa, bigarren aroko lehen alearen aurkezpenean honako hau irakur dezakegu:

"A modo de exordio // Los acontecimientos políticos de estos últimos tiempos, mermaron considerablemente en número, el grueso contingente de las huestes montañeras vascas y hasta el fervor de las escasas que se han mantenido en la brecha, tras aquella imponente criba, que desbarató la gran organización de la 'FEDERACIÓN VASCA DE ALPINISMO' [...] todo hace presumir, que en otros dos o tres años, -los

Goiburua (1935)

PYRENAICA

ANNALES DE LA FEDERACION VASCA DE ALPINISMO

...para el fomento de la noble afición a la montaña,
las enseñanzas del excursionismo y el amor a la
Naturaleza, con especial interés en lo que afecta
al país Vasco,,

MONTAÑISMO-TURISMO Y EXCURSIONISMO-ARTE Y ARQUEOLOGIA-TOPONIMIA
Y ESPELEOLOGIA-ESTUDIOS E INVESTIGACIONES

VOL. 6


OCTUBRE 1935
(2.ª época)

NÚM. 18

DIRECTOR:
Francisco M. Labayen

Comité de la Revista:
San Francisco, 17 - TOLOSA
Teléfono 5


ADMINISTRADOR:
Tomás M. Ganchequi



20. zenbakiaren azala (1951)



Shebe Peña eta José María Peciña



Josetxo Uribe eta Shebe Peña (1957)

que bastaron para desmoronar y echar por tierra el al parecer sólido edificio del montañismo vasco- resurgirá potente y avasallador el espíritu montañero de las masas -todavía un poco apagado, como con sordina- al cerciorarse de que en la práctica pueden compaginarse muy bien las actividades políticas y montaÑeras" (*Pyrenaica* 17, 1935-1: 1).

Normaltasun itxurazko giro hartan, 1935eko apirilean Antonio Telleria Igar-tza hautatu zen mendizaleen Federazioan presidente. Agintaldi laburra izan zuen, hala ere. Jakina denez, 1936ko uztaillean Errepublikaren aurkako altxamendua izan zen, Marokotik Espainiara azkar hedatu zena eta, 1939ra arte Espainia Gerra Zibi-lean murgildu zuena. *Pyrenaica* argitaratzeari ere utzi egin zitzaion.

HIRUGARREN AROA

Gerra amaituta, Francisco Franco jeneralaren diktadura ezarri zen eta gerraos-tekoak apaldu arte, ez zen euskal mendizaleen antolakuntzarako beste saiorik izango, harik eta 1949an Espainiako Federazioaren barruan euskal-nafar ordezkari-za eratu zen arte. Ángel Sopena y Orueta mendizale aitzindaria izan zen gidaria eta, aldi berean, Espainiako Federazioaren lehendakariorde izendatu zuten,



Portada de José María Peciña

Madrilén Julián Delgado Úbeda buru zen bitartean.

Ordezkaritza horren babespean hasi zen *Pyrenaica* berriro ere argitaratzen. Izan ere, 1951n ekin zitzaion argitalpenari, José María Peciña Azantza gidari. Mendizale hau Elgoibarren jaio zen, baina Tolosako mendizaleen giroan aritu zen beti. Aldizkariaren ardura ez ezik, Gipuzkoako ordezkaria ere izan zen euskal-nafar ordezkartzan. Aldizkariaren titularretan aurrerantzean honako hau irakur zitekeen: “Pyrenaica / Federación Española de Montañismo / Boletín Regional Vasco-Navarro”.

Titular berri horrekin batera, azalari formatu aldaketa ere eman zitzaion, garaiari zegozkion ikur politikoak ere erakutsiz.

Aldizkariaren zuzendari José María Peciña Mont Blanc mendian hil zen istripuz 1953ko uztailaren 18an, eta urte hartako 3. alean eman zuen horren berri Ángel Sopeñak. Hortik aurrera, José Uribe Irastortza (Josetxo Uribe) izendatu zuten *Pyrenai*-cako zuzendari, eta argitalpenak etengabeko jarraipena izan zuen.


Aldizkariaren zuzendari José María Peciña Mont Blanc mendian hil zen istripuz

1956ko lehenengo alearekin beste formatu aldaketa bat eman zitzaion aldizka-

riaren azalari. Aurrerantzean azal osoa beteko zuen zuri-beltzeko argazki batek, aldizkariaren izenburua haren gainean eramango zuena.

1962an eratu zen berriro ere Euskal-Nafar Mendizale Federazioa eta bigarren aleetik aurrera halaxe agertzen da titularretan: “Pyrenaica / Federación Vasco-Navarra de Montañismo”.


Pedro Otegi presidente zela, 1966an euskal mendizaletasuna nazioartera jauzi eginge teko asmoa piztu zen zaleen artean. Presidenteak berak eman zuen asmo horren berri, urte hartako bigarren aleko editorialean. Espedizioa abiatzearen berri ere eman zen 1967ko lehen eta bigarren aleetan.



Aldizkariaren mantxeta desberdinak

Espedizioaren lorpenak goraiatuak izan ziren, Peruko Andeetako zenbait gailur lortu baitzituzten, ordura arte igo gabeko bat edo beste barne. Itzuli ere egin ziren puntako mendizaleak eta harrera entzutetsua egin zitzairen. Omenaldiak ere ugariak izan ziren, bai mendizale-elkarrekin aldetik bai eta kirol-erakundeekin aldetik ere.

Alabaina, espedizioan debekatuta zegoen euskal ikurrina erakutsi izanaren informazioa filtratu zen, azaroan Federazioa helarazitako mezu baten bidez, eta erakundeekin erantzuna berehalakoa izan zen: omenaldi guztiak gaitzetsi ziren, sari guztiak bertan behera utzi eta Federa-



Josetxo Uribe

zioaren arduradunek ere beren karguak utzi behar izan zituzten.

Gertakari eta krisi horren ondorioz, urte hartan ez zen *Pyrenaicaren* beste alerik plazaratu, eta zenbait urtetako etenaldia izan zuen aldizkariak, ondoren aro berri bat ekarriko zuena.

LAUGARREN AROA

Perúko espedizioaren krisiaren ondoren, 1971ko abenduan Francisco Iriondo Lizaralde elgoibartarra (Pako Iriondo) izendatu zuten Mendizale Federazioko lehendakari, eta berehala hasi zen *Pyrenaica* aldizkaria osteratzen. Izan ere, 1972ko bigarren hiruhilekoan kaleratu zen urte hartako 2. alea (lehenengorik ez zen izan), aro berri bati hasiera emanik. Lehenengo ale horretan irakur daiteke, Pako Iriondok berak sinatuta, honako hau:

“Después de más de cuatro años desde la aparición del último número de PYRENAICA, hoy con íntima alegría y reposada esperanza os entregamos este primer número que inicia una tercera serie de la azarosa vida de este Boletín del Montañismo Vasco-Navarro, que como un buitre de nuestras montañas reinicia su vuelo, que nosotros queremos sea largo y sereno [...] PYRENAICA son los anales de la historia del montañismo vasco-navarro, que reco-

ge desde hace diez lustros los pormenores de la vida de nuestro montañismo”. (*Pyrenaica* 86, 1972-2: 1-2).

Zuzendari gisa, hala ere, José Uribe Irasortza agertzen da inauguratze-ale horretan, azken krisiaren garaiko berbera. Dena dela, 1972ko 3. alean jadanik Casimiro Bengoetxea Busto agertzen da aldizkariaren zuzendari gisa. Haren aurkezpena eta erreleboaren berri, ordea, urteko azkenengoa alean eman zen:

“Como habréis caído en cuenta, desde el número anterior de la Revista ha habido un cambio sustancial en la Dirección de la misma, sustancial, a mi modo de ver, no por el que viene a ocupar este cargo, sino por el que lo deja. // Como nuevo Director, me cabe la gran satisfacción de dirigirme por primera vez a vosotros, para que, juntos, dediquemos un cariñoso recuerdo, al mismo tiempo que un homenaje, al anterior Director, José Uribe [...] tengo que reconocer y afirmar que siempre me causó admiración la labor callada y de plena entrega de Josecho por nuestro montañismo. // Tenemos que pensar que han sido 18 años al frente de PYRENAICA, esta revista a la que a fuerza de verla aparecer periódicamente no dábamos importancia, pero a la que verdaderamente cómo hemos echado de menos en estos cuatro largos años de ausencia”. (*Pyrenaica* 88, 1972-4: 1-2).

1974ko bigarren alea berezia izan zen eta “Cincuenta años de la Federación Vasco-Navarra de Montañismo” azpiztitulua zeraman. Alegia, Euskal-Nafar Federazioaren 50. urteurrena goraiatzeko izan zen eta editoriala Espainiako Federazioko lehendakari José Antonio Odriozola Calvok sinatu zuen. Formatu aldetik, lehenengoz, koloretako argazkia erakusten zuen azalean. Hurrengoan, hala ere, ohiko zuri-beltzeko azala agertu zen berriz ere.

“Tengo que reconocer y afirmar que siempre me causó admiración la labor callada y de plena entrega de Josecho por nuestro montañismo”

1974ko laugarren alea ere berezia izan zen “Expedición Tximist al Everest” azpiztituluarekin. Harekin berriro erabili zen koloretako argazkia azalean, baina oraingoan halaxe jarraitzeko. Ale hartatik aurrera, Casimiro Bengoetxea zuzendaria ez ezik, Carlos Etxezarreta Bengoetxea administratzailea ere agertzen hasi zen kredituetan.

1976ko lehenengo aleko editorialean, Casimiro Bengoetxearen zuzendaritza-pean, lehenengoz aipatzen da aldizkariaren erredakzio-talde bat laguntzaile moduan:

“El Equipo de Redacción que os insinuaba tímidamente en el número anterior se puede decir que está trabajando a tope, para todo lo relacionado con una mayor información cara a todo lo que pueda ser una mejora en la revista. // Jesús M.^a Alquézar, Felipe Uriarte, Txema Urrutia, Luis Ignacio Domingo Uriarte y Emilio Hernando, creo son hombres de la montaña, con suficiente personalidad conocida para que hayamos puesto nuestra confianza en ellos” (*Pyrenaica* 102, 1976-1: 3).

Antxon Bandrés Zaragüeta presidentetzela, 1976ko hirugarren alean Federazioaren izen berriak irakur daiteke aldizkariaren tituluarekin: ordura arte erabilitako “Federación Vasco-Navarra de Montañismo” izendatu ordez, “Federación

Vasca de Montañismo" agertuko da aurretik (Pyrenaica 104, 1976-3: azala, 1).


1978an Pyrenaica aldizkariaren administrazio eta banatze-sisteman desadostasunak agertu ziren mendizale-taldeen asanbladan, eta 112-113 ale bikoitzeko editorialean Casimiro Bengoetxea zuzendariak bere dimisioa aurkeztu zuen "despedida gisa":

"Pyrenaica aldizkariaren banaketa sistema dela ta F.V.M.ko zenbait klub jarraitzaile aldizkaria beraren iraupena kolokan jartzen duelarik -urtero sistimaz aldatu beharrak sortzen duen segurtasunik eza dela ta-; eta honek alperrikako lana izateaz gainera talde zuzendaria bere egiazko lana den aldizkariaren hobekuntza, salmenta postuen gehitzea, publicitate kanpaina eta abarretik aldendu araziz, administrazio eta banaketa lanetara ia ia eksklusiboki mugatzen duelarik, zera adierazi nahi dut: // 1) Pyrenaica aldizkari zuzendaritzatik dimititzea erabakitzen dut, erabaki hau atzerazina delarik" (Pyrenaica 112-113, 1978-3: 2-3).

Izan ere, aldizkariaren bizirautea zela eta, Euskal Mendizale Federazioak nahi-

taez ezarri nahi izan zuen Pyrenaicaren harpidetza federatu-txartelarekin batera. Bizkaiko zenbait mendizale-taldeek nola-

baiteko mugimendua antolatu zuten derri- gorrezko harpidetza horren kontra, batez ere lizentziaren prezioa nabarmen igotzea



Crónica Alpina goiburua



CRONICA ALPINA

Emilio Hernando

96. zenbakiaren azala (1974)



Kartajanari

zekarrelako. Hala, talde batzuek Burgos nahiz Kantabriako federazioetan tramitatu zituzten haien bazkideen lizentziak, edota, besterik gabe, ez zuten egin.

1979ko lehen aleko editorialean, erre-dakzio taldeak iruzkindu zituen Casimiro Bengoetxearen dimisioa eta Jesús Polo zuzendari berriaren kargu hartzea:

“Parece obligado empezar con una alabanza al director que deja la revista [...] Para el que quiera reflexionar un poco, ahí está la labor que ha realizado Casimiro Bengoechea desde que se hizo cargo de PYRENAICA en el 3.er trimestre de 1972. A la vista queda el resultado de estos 6 años de dedicación absoluta a la revista, bien secundado por Carlos Echezarreta. // No nos despedimos de Casimiro y Carlos, porque les necesitamos con nosotros [...] Empieza otra etapa de PYRENAICA. Casimiro deja la dirección, pero intentando una cosa importante: mantener la continuidad [...] El equipo que colaborábamos con él en los últimos tiempos nos encargamos de la redacción de la revista, y un equipo de montañeros entusiastas de Bilbao, dirigidos por Jesús Polo, se lanzan a la tarea de correr con la publicación y administración. Todos estamos llenos de moral, buenas ideas” (*Pyrenaica* 114, 1979-1: 6).

Ale horretatik aurrera, Jesús Polo aurkituko dugu *Pyrenaican* zuzendari gisa, eta

berarekin lanean arituko da laguntzaile talde bat, aldizkarien kredituekin batera agertzen hasiko dena. Casimiro Bengoetxeak 1978an eratutako laguntzaile taldean agertzen ziren izen berberak ditugu: Txomin Uriarte, Emilio Hernando, Antxon Iturriza, Txema Urrutia, Casimiro Bengoechea eta Jesús M. Alquézar; 1979ko azken alean Ramón Legardónen izena ere batu zitzaizen erredakzio-taldeko partaideei.

BOSGARREN AROA

1980an *Pyrenaicak* aro berri bati eman zion hasiera eta, horrekin batera, formatuan ere aldaketa nabarmena gauzatu zen. Aldizkariak 245 x 170 mm izatetik 285 x 210 mm izatera pasatu zen, era horretan Din A4tik gertuago dagoen tamaina estandarragoa izan zezan. 1980tik aurrera Federazioak ere izena aldatu zuen euskaraz ere agertzeko, *Pyrenaicaren* azpitularretan ere berrituta agertuz: “Euskal Herriko Mendizale Elkargoa”.

Aro berri horretan, 1981eko 122. aleko kredituetan jadanik Antonio Ortega Tercero agertzen da zuzendari gisa, baina erredakzio-taldeak Jesús Poloren zuzendaritzapean egondako berbera izaten segitzen du, alegia, erreleboa modu bake-tsuan eta etenik gabe egin zela argi utziz. Hortaz, Txomin Uriarte, Emilio Hernando,

Antxon Iturriza, Txema Urrutia, Casimiro Bengoechea eta Jesús M. Alquézar dira erredakzio talde hori osatzen dutenak. Hurrengo urteetan beste izen batzuk ere agertuko dira, taldean: Carlos Otxoa, Juanfer Azkona, Santiago Yáñez, Josune Bereziartu, Mikel Nazabal, Arantza Jausoro (orduan López Marugán), Luis Alejos...


Federazioa izendatzeko, 1986. urteko azken alean agertzen da lehenengoz “Euskal Mendizale Federakundea” identifikatzailea, eta izen hori eramango du 2004ko lehen aleraino. 215. aletik aurrera, gaur egun duen “Euskal Mendizale Federazioa” erabiliko da.

1988ko lehen alearekin (150 zk.) *Pyrenaicaren* barruko orrialdeak ere kolorez argitaratzen hasi ziren, argitalpenaren kalitatean jauzi nabarmena eginez, eta alor tekniko-estetikoan bestelako argitalpen profesional askoren mailan kokatzera eraman zuen.

1988ko lehen alearekin *Pyrenaicaren* barruko orrialdeak ere kolorez argitaratzen hasi ziren

Bosgarren aro honetan *Pyrenaicak* argitaraldi jardura handia izan zuen. Garai hartan, eta garai digitalera jauzi egin baino lehen, aldizkaria ez ezik, liburu asko publikatu ziren *Pyrenaicaren* zigiluarekin.

Formatu handiko bi argitalpen



Historia testimonial del Montañismo Vasco



Edizio mugatuan bada ere, 1979tik aldizkariaren aro zaharretako aleak argitaratu ziren sei liburukitan, hau da, 1926tik 1956ra editatutako aldizkari guztien bertsio faksimilea inprimatu zen. Ehun mendien lehiaketa ezagunerako erabili ohi den *Euskal Herriko mendien katalogoa* ere zenbait aldiz argitaratu zuen 1950 eta 2018 bitartean; Luis Alejosek idatzitako *Rutas Pyrenaica* bildumako koadernotxoak, 1986 eta 1991 bitartean argitaratuak eta, ondoren, liburuetan bilduta berriro plazaratuak (*Rutas y cumbres del Alto Pirineo*, 1988; *Alta montaña ibérica*, 1991); *Temas Pyrenaica* bildumako hainbat lan zehatz... Formato handiko liburu gisara, Luis Alejosek berak prestatutako *Rutas y Cumbres del Alto Pirineo* (1988) eta *Cien Cumbres de la Montaña Ibérica* (1996) aipa daitezke, baita Antonio Ortégak, Antxon Iturrizak eta Santiago Yánizek elkarlanean konposatutako *Vascos en el Himalaya 1974-1992, crónica de una aventura* ere (1992). Antxon Iturrizak berak paratu zuen geroago *Historia testimonial de Montañismo Vasco* lan erreferentziala (hiru liburuki, 2004-2007)...




Ehun mendien lehiaketako katalogoaren edizio batzuk

2001ean Pyrenaicak hirurogeita hamabost urte bete zituen. Hori zela eta, urte hartako 204. alean Patxi Galék eman zuen urteurren horren berri, "Ilusiozko 75 urte" izenburuko editorialean, baita "Pyrenaica: revista a una historia" izeneko kronika-artikuluaren ere (*Pyrenaica* 204, 2001-3: 362 eta 402-407).

2004ko 217. alean, erreleboa eman nahian, erredakzio-talde berria sortu

zen, betiere Antonio Ortégaren zuzendaritzapean eta Txomin Uriarte editore gisa mantenduz. Izan ere, ale horretan agertzen den taldean, Luis Alejos, Mikel Arrizabalaga, Patxi Galé, Josu Granja, Ricardo Hernani, Arantza Jausoro, Ramón Olasagasti eta Santiago Yániz zerrendatzen dira. Geroago, Inés Menéndez gehitzen da erredakzio-taldera, eta harekin lortu zen aldizkarian plazaratzen ziren

Rutas Pyrenaica



material kartografikoak formatu txukun eta homogeneoan editatzea. Aurreko erredakzio-taldean egondako beteranoak “consejo asesor” delakoa osatuz agertuko dira. Laguntzaileak bi taldetan banatzearen berri ematen da, halaber, Txomin

Uriartek sinatutako editorialean, “Pos-tura gogor eginez / Apostando fuerte” (*Pyrenaica* 217, 2004-4: 188).

Izan ere, erredakzio-talde berri horrekin batera, besteak beste, bultzada handia eman nahi izan zitzaion aldizkarian euskararen erabilerari. Lehendik ere, noizean behin euskarazko artikulua idazten eta agertzen baziren ere, oro har, mendizale euskaldunak ez ziren ausartzen beren hizkuntzan artikulua bidaltzen. Erredakzio-taldeko partaide euskaldunen egitekoa izan zen, hain zuzen ere, halakoak animatu eta edizio-lanetan laguntza ematea. Horren ondorioz, nabarmen igo zen euskarazko artikuluen kopurua 2003tik aurrera.

Talde honekin lortu zen, halaber, nolabaiteko murgiltze digitala. Hasteko, aldizkariaren aurkibideak jaso eta haiekin datu-base bat osatu zen. *Pyrenaicaren* bilduma osoa digitalizatzeko finantzaketa lortu eta, aurkibide horiekin batera, bilaketa-sistemak hobetzen joan ziren, harik eta gaur egun eskura daukagun “hemeroteca” azkarra eta aberatsa lortu arte. *Pyrenaicaren* webgunea ere nahi-

koa aberastu zen, mendi-ikerketak eta zerrendak eskuratzeko “Tatxamendien txokoa” izeneko atalarekin (*Pyrenaica* 226,: 2003-1: 312), eta parte hartzeko tresna berriak abian jarritz.

Pyrenaicaren bilduma osoa digitalizatzeko finantzaketa lortu eta bilaketa-sistemak hobetzen joan ziren


2010eko 241. aleko kredituetan Luisa Alonso Cires agertzen da lehenengoz erredakzio-taldeko partaide gisa. Euskal mendizaletasunean emakumeen presentzia eta parte hartzea bultzatzera etorria, ekarpen eta aldaketa handiak ekarriko zituen aldizkariaren historian. Izan ere, haren bultzadari esker jarri zen abian *Pyrenaicako emakumeak* izeneko blog-a (*Pyrenaica* 240, 2011-3: 210-211), eta horren bitartez emakume mendizale asko hasi ziren animatzen idazkiak argitara ateratzen. Hasieran, nahi bada, aldizkari-ko artikulua baino tonu informalago batean eta, ondoren, aldizkarian estilo landuagoan ere. Oso nabarmena izan zen hortik aurrera emakumeen parte hartzeak izan zuen igoaldia, bai *Pyrenaican*, bai lantaldeetan, eta bai, oro har, mendi-jar-dueretan ere.

2012ko lehen alean EMFren lehendakari gisa Álvaro Arregi Otadui agertzen da, eta ale bereko editoriala berak sinatzen du (*Pyrenaica* 246, 2012-1: 1 eta 2). Aginte-aldaketa traumatiko samarra izan zen eta zuzendaritza-batzorde berriak hasieratik erakutsi zuen mesfidantza *Pyrenaica* aldizkari-ko lantaldearekin. Neurri handi batean horren ondorioz, hurrengo alean, 2012ko 247.ean, erredakzio-taldetik desgertzen da Patxi Galéren izena, eta hurrengoan Luis Alejos ere pasatzen da erredakzio-taldetik “Consejo asesor” delakora.

Agintaldi laburra izan zen Álvaro Arregiarena, ordea. 2013ko 250. alean, Joseba Ugalde agertzen da EMFren presidente gisa eta, aldaketa horrekin batera, Patxi Galé itzuli zen erredakzio-taldera.


Gaixotasun luze baten ondoren, 1980an Everesterako lehen espedizioan egondako

Rutas Pyrenaica



Aldizkariaren formatu desberdinak





Aldizkari-sorta

Emilio Hernando joan zitzaigun 2013ko abuztuaren 27an. Urte asko egin zituen *Pyrenaicaren* erredakzio-taldean eta "consejo asesor" delakoan. Urteko hirugarren alean eman zuen haren figuraren eta haren heriotzaren berri erredakzio-taldeak ("A Emilio Hernando: una silla vacía", *Pyrenaica* 252, 2013-3: 524). Hark utzitako hutsunea ezin zen bete, baina gabezia hura arintzeko, haren seme Pello Hernando hasi zen agertzen aldizkariaren "consejo asesor" delakoan 2013ko 253. aletik aurrera.

2014ko 256. alean Itziar Lazurtegi Mateos agertzen da erredakzio-taldearen partaideen artean. Izan ere, Luisa Alonso Ciresen sustatutako *Pyrenaicako* emaku-

meak izeneko blog-ean, eta baita aldizkarian bertan ere, 2011tik aurrera parte hartze handia izan zuen. Handik gutxira, 2014ko urriaren 18an Panticosa gaineko Dientes de Batanes mendian izandako istripu latz batean zendu zen Itziar.

Garai hartan, EMFren zuzendaritzaren eta *Pyrenaicaren* erredakzio-taldearen arteko harremanak ez ziren bereziki onak, ostera ere mesfidantza nagusitu baitzen. 2014ko azaroaren 8an, Elgoibarren bildu zen EMFren asanblada eta *Pyrenaica* aldizkariaren etorkizunerako erabaki garrantzitsua hartu zen. Elkarte batzuek aldizkaria soilik formatu digitalean argitaratzeko proposamena egin arren, asanbla-

dak ez zuen halakorik onartu eta aldizkaria autonomoa izatetik, EMFren estatutuetan beren-beregi aipatua eta babestua egotera pasatu zen. EMFrekiko harreman kaltetu horien ondorioz, 2015eko 258. alean Inés Menéndez desagertu zen erredakzio-taldetik eta, egoera berrira egokituko zen erreleboa komeni zela azaleratzen hasi zen.

Era horretan, 2015eko 259. alean Luisa Alonso Cires agertzen da *Pyrenaicako* zuzendari gisa, Antonio Ortegarai lekukoa hartuta. Erreleboaren berri eman zuen zuzendari berriak ale horretako editorialaren bidez: "Inspirazioa eta etorkizuna" (*Pyrenaica* 251, 2015-2: 383 eta 384). Erredakzio-taldea ere berritu egin zen eta, lehendik ere



Pyrenaica sariak 2013ko Galan



Zuzendari ohiak 2024ko Galan

bazeuden Mikel Arrizabalaga, Josu Granja eta Ricardo Hernanirekin batera, izen berriak gehitu ziren lantaldera: Javier Benito Etxenike, Iván Ruiz Rotaetxe, Arantza Lazurtegi Mateos, Ana González García...

Aldaketaren irudia are nabarmenago egiteko, 2016ko lehen alearekin (262 zk.) formatu aldaketa ikusgarria gauzatu zen *Pyrenaican*. 1980tik aurrerako tamaina berari eutsi arren, koadernatze sistema

desberdina erabiltzen hasiko da, lehengo grapa-sistemaren ordez, kolatze sistema erabilita. Horren ondorioz, aldizkariaren itxura fisikoa desberdina izango da. Aldi berean, ordura arte aldizkariak bi urtetik



Aldizkari-sorta

bi urtera elkarrekin koadernatzeko egon zen aukera desagertu zen. Koadernatze hartarako beren-beregi azalak salgai jartzen ziren biurteko bakoitzaren amaieran, eta 2016tik aurrera ez zen gehiago eskainiko.

Luisa Alonso Cires zuzendari izan zen bitartean, berebiziko garrantzia eman zitzaizen euskararen presentziari eta emakume mendizaleen parte hartzeari. 2017ko 266. aldizkariako editorialean Mikel Arrizabalaga taldekide esperientziadunak haxe eman zuen argi aditzera "Mendizale-tasuna eta euskara" izeneko editorialean (Pyrenaica 266, 2017-1: 5).

1980ko maiatzaren 14an, Martin Zabaleta Everesten gailurra zapaldu zuen lehengo euskalduna izan zenetik, euskal mendizaleen arrakastak ugariak izan dira eta zaleen kopurua gorantz joan da urtez urte. Badirudi azken urte hauetan mendizaletasuna gero eta gehiago zabaltzen ari dela, edo beste era batera esanda, gero eta jende gehiagok daukala mendira joateko ohitura. Milaka eta milaka lagun gara gure herriko mendietara hurbiltzen garenak, gure kabuz, bakarrik, lagunekin edota modu antolatuan.

100 urte, milaka artikulua, hamarnaka mila orrialde eta makina bat kolaboratzaile, baina ibilbide luze honetan, nolakoa izan da Pyrenaicak euskararekin izan duen harremana? Galdera horri erantzuteko, urte horietan guztietan, mendizaleon aldizkaria izan den Pyrenaicako edukiak aztertu eta datu bilketa egin dut. Datu horiek hamarkadaz-hamarkada bereiztu ditut, artikulua eta orrialde kopuruak zehaztu ditut eta azkenik, kolaboratzaileen parte-hartzea generoka aztertu dut. Ondorioak irakurle bakoitzak atera ditzala.

Azterketa objektibo eta zehatzagoa egiteko, aldizkaria hiru sailetan banatu dut: editorialak, albisteak eta artikulua.

EDITORIALAK

XXI. mendera arte idatzitako editorial gehienek ez zuten izenperik, eta izenpetuta daudenak, batik bat Txomin Uriarte erredakzio batzordeko kide ohiarenak dira. Mende berriaren lehen hamarkadan oraindik Txomin Uriarterenak dira gehienak, baina ordurako erredakzio batzordeko beste zenbait ki-



Aldizkari-sorta

dek eta federazioetako lehendakariak ere parte hartuko dute. Aurrerantzean dinamika hori areagotu egingo da.

Pyrenaica aldizkariaren historian, lehen editoriala euskaraz, 1978ko 110. alean argitaratu zen, elebiduna (gaztelera-euskara), ordura arte argitaratutako guztiak gaztelera hutsez idatzi eta argitara eman ziren. Gerora, argitaratu diren editorial guztiak bi hizkuntzetan irakurri ahal izan ditugu. Joera nagusia gaztelera hutsez idatzi eta erredakzio batzordeko kideren batek itzulpena egitea zen (eta da), gutxi izanik jatorrizko bertsioa euskaraz idatzitakoak.

ALBISTEAK

Aldizkariaren sail honek ez du beti egitura berdina izan. Euskal Mendizale Federazioa eta lurraldeetako federazioen albisteez gain, agenda, gutunak, iritziak, iragarkiak, argitalpenak, komikiak, eskalada, mendi lasterketak eta bestelako edukiez hornitu da. Horietan guztietan euskaraz idatzitakoak asko dira, baina oso zaila da ondorio zehatz batzuk ateratzea. Hala ere, esanguratsuak diren hiru datu eman daitezke:

1- 2010. urte arte, sail honetan idatzitako testu guztiak gaztelera hutsez argitaratu izan dira. Gerora, euskararen presentzia areagotuz joan da.

2- Euskaraz argitaratzeko orduan, Euskal Mendizale Federazioaren eta lurraldeetako federazioen inplikazioa desberdina izan da. 2010-2015 urteen artean, Gipuzkoako Mendizale Federazioa albiste gehienak euskaraz argitaratzen hasten da, gerora Euskal Mendizale Federazioak eta Bizkaiko Mendizale Federazioak ere zenbait albiste euskaraz idatziko dituzte, eta Arabako Mendizale Federazioak, aldiz, gutxi.

Azken hiru urteetan Nafarroako Federazioaren albisteetan euskarak badu bere tokia.

3- Azken 15 urte hauetan, albisteen sailean euskaraz gehien argitaratu duten kolaboratzaileak, hauek dira:


Kolaboratzaileak / Albiste gehien euskaraz		
Izen deiturak	Saila	Kopurua
Alberto Mella	Mendi lasterketak	25
Iru	Komikiak	13
Mendifilm	Zinema	12
Andoni Arabaolaza	Eskalada	10

ARTIKULUAK

Atal honen azterketaren emaitzak hiru irizpideren arabera sailkatu ditut: orrialde kopurua, kolaboratzaileen generoa eta zuzendari bakoitzaren agintaldia.

ORRIALDE KOPURUA

Euskararen erabilera orrialdeka					
Garaia	Aleak	Artikuluak euskaraz	Orrialdeak guztira	Orrialdeak euskaraz	%
1926-1949	19	7	1.151	13	1,1
1950-1959	36	10	1.652	10	0,6
1960-1969	30	33	1.623	76	4,7
1970-1979	32	20	1.989	49	2,5
1980-1989	40	56	2.383	151	6,2
1990-1999	40	55	2.751	206	7,5
2000-2009	40	56	3.121	240	7,7
2010-2019	40	86	3.648	546	15,0
2020-2025	24	104	2.276	648	28,5
GUZTIRA	301	427	20.594	1.939	9,4



Pyrenaica aldizkariaren argitalpenaren jarraikortasunak hainbat gorabehera historiko izan ditu eta oso lotuta egon da garai bakoitzean Espainiako estatuan eta Euskal Herrian izan diren gertakizun historikoekin: errepublika, gerra zibila, diktadura frankista, trantsizioa eta monarkia konstituzionala.

Datuek argi erakusten dute 80ko hamarkada arte, arrazoi desberdinak direla medio, euskararen presentzia oso eskasa

izan dela. 60ko hamarkada arte euskarazko presentzia batetik bat folkloreakin lotuta zegoen, gehienak abestiak ziren. Hurrengo bi hamarkadetan bestelako artikulua idazten argitaratuko dira euskaltzale batzuen eskutik: S. Garmendia, Pakol, Jesus Altuna, Juan San Martin, Martin Labaien eta Antton Narbaiza, besteak beste.

Hurrengo hiru hamarkadetan (1980-2010) bikoiztu egingo da euskararen erabilera eta nabarmen igoko da euskaraz idatziko duten kolaboratzaileen kopurua. Hala ere, jauzi kualitatibo eta kuantitatiborik handiena azken zortzi urteetan eman da, ale askotan idatzitako artikuluen laurdena euskaraz idatzitakoak da, zenbaitetan herena izatera iristen delarik.

GENEROA

Euskararen erabilera generoka					
Garaia	Kolaboratzaileak	Gizon	%	Emakume	%
1926-1949	4	4	100	0	0
1950-1959	4	4	100	0	0
1960-1969	6	6	100	0	0
1970-1979	8	8	100	0	0
1980-1989	44	39	88,64	5	11,36
1990-1999	43	39	90,70	4	9,30
2000-2009	51	40	78,43	11	21,57
2010-2019	70	58	82,86	12	17,14
2020-2025	71	49	69,01	22	30,99
GUZTIRA	301	247	82,00	54	18,00

Euskal eskaladari buruzko azala (2020)





Artikuluak euskaraz

Euskararen presentziarekin gertatu lez, emakume batek euskaraz idatzitako lehen artikulua ez da 1980 arte argitaratuko, Teresita Irastorza "Mendi bideak euskal kulturaren eza-gupide bezala" idatzitako artikulua hain zuzen ere. Gutxi dira oso, euskaraz idaztera animatzen direnak. Beste hogeitaz itxoin beharko da, XXI. mendera arte, emakume-kolaboratzaileen kopurua nabarmen igotzeko. Azken sei urte hauetan, berriz, jauzi kuantitatibo nabarmena eman da, hiru kolaboratzaileetatik bat emakumea izan da. Hala ere, nahi baino gutxiago.

Editorialetan (euskara/gaztelera), sinatutakoen artean 35 sinadura desberdin agertzen dira, 32 gizon (% 91,43) eta 3 emakume (% 8,57).

ZUZENDARIEN AGINTALDIA

Euskararen erabilera zuzendari bakoitzaren agintaldian			
Zuzendaria	Garaia	Urteak	Euskara (%)
Jose Ramon Murga	1926-1927	2	0,3
Manuel de la Sota y Aburto	1928-1930	3	1,6
Francisco Maria Labayen	1935-1936	2	0,0
Jose Maria Peciña	1951-1952	2	0,0
Jose Uria	1953-1967	15	2,9
Casimiro Bengoetxea	1972-1978	7	1,9
Jesus Polo	1979-1980	2	5,7
Antonio Ortega	1981-2015	35	10,6
Luisa Alonso	2015-2022	7	23,6
Ivan Ruiz	2022-2025	4	28,5

Kolaboratzaileak / Artikulu gehien euskaraz

Izen deiturak	Kopurua
Mikel Arrizabalaga	44
Ioritz Gonzalez	24
Matxin Labayen	16
Pakol	9
Mila Gallastegi / Asier Aranzabal	8
Antxon Narbaiza	7
Jesus Altuna	7
Jexus Aizpurua	7
Felix Inurrategi	7
Guillermo Vio	7

Aurreko bi ataletan bezala, 80ko hamarkadan hasiko dira aldaketak eta, batik bat, azken bi zuzendarien agintaldian.

Azkenik, azterketa txiki honi amaiera emateko, 100 urteko adina duen Pyrenaica aldizkarian, euskaraz artikulua gehien idatzi duten 10 kolaboratzaileen zerrenda erakusten da. Hailere, azpimarratu behar da, urte hauetan guztietan, 200etik gorakoa dela beren artikulua (euskaraz) aldizkariaren esku musu-truk utzi dituzten kolaboratzaileen kopurua. Mila esker guztiei!

Erabakia sendoa zen, eta idatzita gelditu zen egunkari
beza... itzen zuen libretan.

ba... katzera zihoan udazkena, eta egunean
mitxeletak bakanduago; soilik osi-
essa-K aurki zitezkeen auzuneko
herriz, argi indarraren alanbre-
tan... da: ehun eta hogeit hamar alanbre-
batean... berrogei bestean, berrehun eta hiruro-
ra. Une batetik bestera abiatuko ziren
berbidai... andian, hegoalderantz.

Joan... ira enar... idatzi zuen mais-
trak Al... ko a... rurogei txori gutxi-
agorek...ustu... zenean.

zute... apunteak otoien lekua betetzen
naren bizitzan; baretu eta bere ohizko
murtzen zuten bere bihotz nahastua
Ore... hotz huts; bere baitan bazeuden, gainera,
oto... enera ezin jar zitezkeen beste indar batzuk
Eta indar horiek—ezkutukoak eta boteretsuak, zenbai-
tetan erabat biluzirik ohera erazten zutenak—bere lagunik
lagunen ekartzen zioten gogora, eta harekin hondartzan
behin... satako San Juan gaua.

Berak egoskorra zen, ez zuen erabakirik hautsi nahi.
Berak erabazun zezanean egingo zion gutun berri bat, bi-
tardean... Gauzak hola, berri ofizialak lortzeko bakarrik
hartzen zuen luma; inspektoreagana zuzentzeko gehien-
tsuenetara.

Erakustea zaila da berez, eta ia ezinezkoa niri egokitua
zaidan bezalako ostatu gain honetan, Kejatzun zitzaion
haietako aldi batean—. Teilatuak itoginak dauzka. Pupi-
trek erdi puskatuta daude. Lehoi pare bat Kristalik gabe

PYRENAICAREN MENDEURRENEKO KONTAKIZUN LEHIAKETAREN EUSKARAZKO IRABAZLEA

ILUNABAR ARROSAK

TESTUA



Eneko Xabier Arregi Bengoa
(Aramaio, 2003)

Mendipean bizi da eta umetatik lotura handia izan du mendi eta naturarekin. Gurasoek beti bultzatu dute mendira eta haiengandik jaso du liburuekiko zaletasuna ere. Euskal ikasketak egin zituen, eta urte bete igaro zuen Polonian. Handik itzuli eta Gradu Amaierako Lanetik ihes egin nahiak eta Erasmu-seko nostalgikak bultzatuta ipuin hau idazten hasi zen.

"Heldu ziren bi lagunak Zakopaneko tren geltokira. Hamabost minutu barru trena Krakoviarantz abiatuko zen. Begiak umelak zituzten eta besteari aurpegira begiratzeko beldurrez zeuden. Berrogei eta hirugarren orrialdean zabaldu zuen bere liburua Julenek eta lehortutako arrosa bat hartu zuen:

-Loreek oroitzapenak gordetzen dituzte eta lehortutako loreek betiko diraute. - esan eta eskua luzatu zion.

Besarkada estu eta luze baten ondoren trenean sartu eta zegokion eserlekua bilatu zuen. Ez zuten ezer gehiago esan, biek ere eztaerriak orapilatua zuten eta ez zutenez malkorik isuri nahi ez ziren ezer esatera ausartu. Leihotik begiratu eta beraien begiradek topo egin zuten azkenekoz."

Iraila hasiera zen eta oporrak zituen Julenek. Hiriko zarata eta bizimodu azkarretik ihes egin nahi eta Pirinioak alderik alde zeharkatzea bururatu zitzaion mendiko lasaitasunean babesa aurkitze aldera. Hondarribian hasi zuen GR-11 bidea eta egun horretan Cap de Llauseteko aterpetxera heltzear zegoen. Hiru aste igaro ziren horrenbeste gorroto zuen zarata atzean utzi zuenetik, baina bakarrik sentitzen hasia zen. Lagun guztiak lanean gelditu ziren eta iraila erdialdea izanik ez zen jende gehiegi hurbildu mendirat. Bakarrik egin zituen azken etapak, GR-11 bidean ari zen beste inorekin topo egin gabe, bakarrik eta isilik, bakarregi eta isilegi agian.

Hotza zegoen dutxako ura baina gogoz hartu zuen Julenek, azken egunetan ez baitzuen dutxatzeko aukerarik izan eta atzean utzi nahi zituen aurreko egunetako izerdi eta nekeak. Afalordua zen eta hain jende gutxik igaro behar zuen gaua aterpetxean non guztiei mahai berean esertzea egokitu zitzairen. Bere alboan toki bat hutsik zegoela erreparatu zuen baina ez zion garrantzi

handirik eman eta bere pentsamenduetan murgildu zen. Ez zen oso hiztuna, eta tarteka egiten zizkieten galderak erantzuten zituen arren, ez zuen mahaikideen hizketaldian parte hartzeko ahalegin berezirik egin. Bere Iruñeko pisuan zuen burua, bere pisuan eta bere dendatxoan, ihes egin nahi zuen horretan hain zuzen ere.

Loreak saltzen zituen Julenek, loreak eta landareak. Oso tipo melankoliatsua zen bera eta orduak igarotzen zituen bere lore eta oroitzapenak ordenatzen, bizitako guztia biziberritzen. Loreek gure oroitzapenak gordetzen zituztela esaten zuen eta lore bat zuen bizi honetan hunkigarriak iruditu zitzaizkion gertakizun guztietarako. Lorezaintza kontuetan ari zela beste pertsona bat eseri zen bere ondoan, baina ez zen konturatu neska hark ura eskatu zion arte. Ez zuen burua altxatu beharrik ere izan, berehala ezagutu zuen hitz egiten ari zitzaion ahotsa eta berehala ezagutu zuen inguratzen zuen lurrin goxoa.

*

Presaka irten zen Elene aterpetxeko dutxatik. Beste norbait dutxatu zen bera baino lehen eta bazekien orain berandu iritsiko zela afaltzera. Arropa jantzi eta ziztu bizian abiatu zen jange-

larat. Hutsik zegoen jarlekura zihoala erritmoa moteldu zuen, bazekien ile nahasi hark ezkututzen zuen aurpegia Julenena besterik ezin zitekeela izan. Arnasa sakon hartu, ausardiaz bete eta bere ondoan eseri zen.

Urteak igaro ziren elkarrekin azkenekoz egon zirenetik. Ez bat-tak ez besteak ez zuten ahaztu Zakopanen, Tatra mendien ma-galean, igaro zuten azken gau hura. Oraingoaren antz handia zuen gau hark. Eguzkia haitz erraldoien atzean gordetzen ikusi zuten zer esan jakin gabe, zer egin ez zekitelarik. Elenek urte pare baterako kontratua zuen Zakopaneko ostatu batean eta Julen bere ikasketak amaitzera joana zen. Inguruan zeuden euskaldun bakarrak ziren eta berehala lagun onak egin ziren. Mendizaleak ziren biak ere eta larunbatero elkarrekin inguruko tontorren ba-tera joateko ohitura hartu zuten. Horrela egin zuten azken larun-batean ere. Rysyra joateko asmoa zuten baina astebete lehenago egindako elurteak hori galarazi zien. Hurrengo batean berriro ahaleginduko zirela hitzeman zuten baina biek ere bazekiten ez zela horrela izango.

Polonia utzi eta asteartean itzuliko zen etxera Julen, baina Elenek oraindik ez zuen horrelako asmorik. Egia esan, ez zu-ten uste ez Rysy ez beste mendirik elkarrekin igoko zutenik berriz ere. Tren geltokian besarkada luze baten ostean agur esan zuten, gauza garrantzitsuenak esan gabe utziz. Bizitakoa ez ahazteko arrosa bana lehortu zuten, trena martxan jar-tzearekin bat malkoez blai egin zirenak. Arrosek bizitakoa ez ezik biziko ez zutena ere oroitarazten zieten, azaleratu gabe-ko sentimendu eta asmoak. Inoiz telefonoz hitz egin bazuten ere harremana galdu eta urrundu egin ziren. Ordutik ez ziren elkarrekin egon, ordutik bestea ahazten ahalegindu ziren. Or-dutik gaur arte.

Egunean jarri ziren nolabait eta azken urteak erreparasatu zi-tuzten azaletik. GR-11 zeharkaldia egiten ari zen Elene ere, baina azken etapetan beste aldaera luzetxoago bat egin zuen Angel Orus eta Renclusako aterpetxeetatik igarotzen zena eta Julenek harrapatu egin zuen. Gauzak horrela, bazekiten biei bide bera gelditzen zitzaiela egiteko eta zentzuzkoena batera egitea zela. Juleni ideia hau ez zitzaion oso erakargarria iruditzen, oraindik etapa dezente gelditzen baitzitzizkien Cap de Creusera iritsi arte eta bidaia gogaikarri xamarra izateko beldurra zuen. Elenek ordea beste begi batzuekin ikusten zuen, berriz ere elkarrekin egoteko aukera zuten eta oraingoan gauzak behar bezala egite-ko tertzioa zen hura.

*

Hurrengo hamar egunetan ez zuen batere euririk egin eta ez zuten hotzik pasa ezta gauetan ere, sasoirako ezohiko egural-dia egiten zuen. Hilabete bereziki lehorra izaten ari zen ordu-ra arte, eta bero ikaragarria egiten zuen egun hartan. 16 kilo-metroko etapa bat egin behar zuten egun hartan eta goizean goiz irten ziren Àreutik Baiauko aterpetxera joateko. Hamabiak inguru Baiaura iritsi nahi zuten, edo aterpetxetik gertu egon behintzat, ez baitzuten eguerdiko eguzki kiskalgarriaren pean luze ibili nahi.

Zerua argitzen hasia zen ordurako eta zazpiak inguru izango ziren Monteixoren ostetik lehen eguzki printzak ateratzen iku-si zituztenean. Lurrera eroritako enbor batean eseri ziren biak, naturaren handitasunak liluratuta. Beldurgarria zen kasik, au-rrean zuten irudia. Zerura begiratu eta aise egongo ziren mila metrotik gora Monteixoko tontorrera, eta tontorretik zertxobait eskuinerago, indartsu ikus zitekeen eguzkia, Monteixoren itzal ikaragarria argitu nahian.

Eguzkiari begira zegoen Julen, pentsakor. Sisiforen antze-ra, eguzkia betirako kondenatua zegoela pentsatu zuen, mila aldiz irten zen Monteixoren ekialdetik, mila aldiz ahalegindu zen eguzkia Mendiari itzala lapurtzen eta mila aldiz gorde zen eguzkia sartaldetik, Monteixori itzala ostu gabe baina hurrengo egunean lortuko zuela hitzemanetz. Zoriontsu izango ahal zen eguzkia? Zoriontsu izango ahal zen behintzat bere lehen izpie-kin eguna argitzen hasi eta aurrean zuen paisaia ikustean? Zo-riiontsu izango ahal zen eguzkia eguerdian, Monteixoren itzala txikiena zen unean?

Eguzkiak mendebaldera egin ahala, ekialdera zihoan itzala eta haren atzetik joan ziren bi mendizaleak ere. Eguzkia ez zuten la-gun, hala ere, guztiek helburu bera zuten, gerizpea harrapatzea. Eguzkiak ez zuen inoiz lortuko bere nahia, goizean mendiaren ezkerraldean zegoen itzala, baina eguzkia bertara iritsi orduko eskuinaldera egiten zuen ihes gerizpeak, eta horrela egun batean nola hurrengoan.


Mendigoizaleek ordea harrapatu zuten gerizpea, baita biziki eskertu ere. Hala ere, ez zien gehiegi iraun horrek eta azken ki-lometroak eguzkipean egin behar izan zituzten, ez baitzuten ez mendiaren babesik ez eta basoko arbolen gerizperik ere. Mendi zuloan barrena, erreka eta lakuen artetik iritsi ziren azkenean burdinazko aterpetxera.

Orain aurrean zuten paisaia guztiz zen ezberdina. Eguzkia, indarge, mendi ikaragarrien atzean gordetzen ari zen, egun osoko borrokaren ondoren nekatuak zeuden izpiak eta argi is-latzen zuten nekea zeruan. Gorritu ziren zeruan ageri ziren lai-no apurrak eguzki printzen azken indarrekin eta tonu gorri ilun batek estali zuen zerua.


*

Hamaika ilunabar ikusi zituzten Julenek eta Elenek elkarre-kin. Polonian hasi ziren ilunabarrak batera ikusten eta egunen joanarekin beraien "gauza" bihurtu zuten, konta ezinak ziren elkarrekin ikusi zituzten ilunabarrak, isili-isil elkarren alboan eserita, bat ere hitzik esan gabe, tarteka elkarri begiratu eta irribarre eginez. Orain Pirinioetan ere ikusi zituzten nahikotxo, eta ikusitako ilunabar bakoitza desberdina bazen ere, bazuten guztiek ere zerbait amankomunean. Ez ziren hain ezberdinak Pirinioetako ilunabarrak eta Tatra mendietakoak.

Horiek horrela, eta ilunabarrek duten magia eta epeltasuna dela edo, konturatu gabe elkarri begira zeudela ikusi zuten bi gazteek. Eleneren begirada eztiak beldurtuta, nekatuta zegoela esan eta ohera joan zen Julen, gau horretan lo gutxi egingo zue-la jakin arren. Buruari bueltak emanez pasa zuen gaua Julenek,



R. ELORZA 2026





pentsamenduak, oroitzapenak eta sentimenduak nahasiz eta zer egin erabaki ezinean. Alboko ohean entzuten ziren zarata eta mugimenduen arabera bazirudien Elenek ere ez zuela lo sakon egiterik. Julenen ihesaldi trakets hark barrenak nahastu zizkion eta lainoek kolore gorrixka hura guztiz galdu arte kanpoan gelditu zen zer egin ez zekielerik, burua hor nonbait galduta. Lotara joan aurretik, aterpetxearen albo batean lore eder bat ikusi eta motxilan zuen liburuko orrien artean gorde zuen sikatu eta hondatu ez zedin.

*

Igaro ziren egunak eta gauak. Inora ez zeramaten elkarriketak hainbat hitz esatea saihestuz, hitz okerren bat esango zutenaren beldurrez, isiltasun luzeen ondoren bestak esan zezakeenaren ikaraz. Lagunari hura begira ez zegoenean soilik begiraturaz, eta begirada itzuliz gero, segundo baten aurkako aldera begiraturaz. Momentu hori hitz egiteko momentu egokia ez zela esanez, lehen-txeago igaro zela momentu egoki bat eta etorriko zela geroxeago beste momentu egokiago bat pentsaturaz. Ahalegindu ziren hainbat aldiz zerbait egiten baina oso zaila zen duela lau urte irekitako zauri hura sendatzen hasi eta ordutik esateke zituzten gauzak esatea. Batzuetan ez da hain erraza bizitzari aurre egitea.

Azkenean, hitz egiteko momentu egokirik izan gabe eta elkarri begiratzeko beldurrez, halako batean iritsi ziren Pirinioak bukatzen ziren tokira eta eguzkia mendien artean nola ezkutatzen zen ikusten ari ziren. Azken hogeia egunetan, Cap de Llausetetik Cap de Creusera iritsi arte, behin eta berriro ikusi zuten zerua kolorez aldatzen, lainoak tonu gorrixekin jostatzen, baina behin ere ez zuten ilunabarrik galdu. Egunero liluratzen zituzten azken eguzki izpiek eta egunero harritzen zituzten naturaren kolore biziak.

Une hartan eguzkiaren dirdiraz beste protagonistarik ez zegoen, eta minutu batzuez, guztia amaitzeaz egoteak zekarrena ahaztu zuten. Hurrengo egunean Gironara joango ziren eta Julenek Iruñerako tren hartuko zuen. Pare bat ordu beranduago hegazkinean Loiura joango zen Elene.

Presaka iritsi ziren tren geltokira, tren abiatzeko hamar minutu eskas falta zirelarik. Julen bere bagoira sartzera zihoanean, Elenek eskumuturretik heldu zion eta bere besartean estutu zuen azkenekoz. Astirik ez zuten arren, luze besarkatu ziren Elenek liburuan gordetako lore hura Juleni eskaini zion arte. Julen ez zen ezpainei irribarre egitera behartzeko gai ere, tristurak aurpegiko giharrak astuntzen zizkion eta mugitzea galarazten, bere ezpaineak sekulako pisua zuten eta betazalek begirada lurrrera besteratzera derrigortzen zioten. Begirada altxatzeko azken esfortzu bat egin zuen Eleneren bisaia azkenekoz ikusteko, eta eskuineko masailan muxu azkar bat eman ondoren buelta erdi eman eta trenera sartu zen. Muxu azkar bat eta begirada triste bat, sakona bezain sarkorra zena eta min izugarria islatzen eta ematen zuena. Muxu azkar bat eta begirada ilun bat esan gabe gelditu ziren hitz guzti horien orde. Muxu bat inoiz hasi ez zena bukatzeko eta begirada bat inoiz hasi ez zena ez zutelako bukatutzat eman nahi.

LA FAMILIA DE PYRENAICA

Tal y como se describe en el artículo dedicado a las "tripas" de Pyrenaica, ésta es posible gracias a una red de personas y empresas que organizan y dan forma a los contenidos aportados por las personas colaboradoras, que, a la postre, recibiremos en nuestro buzón transformados en una atractiva revista.



Xabi Mujika



Paulo Etxeberria

Por un lado, tenemos las empresas proveedoras de Pyrenai-
ca: maquetación, impresión, encuadernación, embolsado y
envío. Por otro lado, Gotzone, encargada de la parte adminis-
trativa (direcciones de envío, suscripciones, facturas, etc.),
imprescindible para el buen funcionamiento de la revista.

Por último, está el equipo de redacción, un grupo de per-
sonas que, de manera altruista y en su tiempo libre, selec-
cionan los contenidos a publicar en cada número, revisan los
artículos y las fotografías, escriben secciones fijas, coordinan
las colaboraciones externas, eligen la portada, etc.

Vamos a dejar que estas últimas nos cuenten su relación
con la montaña y con Pyrenai-
ca.

XABI MUJICA "SMITHY"

Zoriaren ondorioz, Ordizian jaio nintzen, Gipuzkoako Goie-
rri eskualdean, Aizkorrik eta Aralarrek muga egiten duten
lekuan, duela berrogeita hamar urte baino gehiago. Modu
batera edo bestera bizitza osoa mendiari lotuta eman dio-
dan arren, 1996an iritsi zitzaidan mendizaletasuna, amaren
heriotza goiztiarrak bizi-zimenduak astindu eta bizitzari eta
heriotzari zentzua bilatzeko asmoz Done Jakue bidea osaba-
rekin egin nuenean.

Eskaladarako zaletasuna beranduago iritsiko zen, Piri-
nioetako hirumilakoak igotzen hasi nintzenean. Eta eskala-
dak gogor lotu ninduen, ispilu maltzur baten moduan, du-

dan beldurra, konfiantza, ahulezia, indarra, errealitatea eta
desioa islatzen didalako, eta islatzen didana aldatzeko edo
indartzeko nahia ematen didalako.

Mendia nire arimarekin eta nortasun sakonarekin ko-
nektatzea lortzen duen bizitza-eskola izan da (eta da). Ho-
rregatik uste dut mendiko edozein jarduera egitea bezain
garrantzitsua dela jarduera horren bizipena partekatzea.
Horixe izan zen "smithyrenbloga" bloga sortzearen arra-
zoia, baita Pyrenai-
cako erredakzio-taldean parte hartzeko
gonbidapenari emandako baieztok erantzunaren arrazoia
ere; izan ere, aldizkari honek ehun urtetan mendizale as-
koren ametsak, nahiak eta bizipenak jaso ditu, beste men-
dizale batzuen amets, nahi eta bizipen bihurtu direnak. Nire
uste apalean hori da Pyrenai-
caren ondarkerik handiena;
horregatik, aldizkaria bizirik mantendu nahi badugu, orain
guri dagokigu gure ametsak, nahiak eta bizipenak parte-
katzea, ondoren etorriko diren mendizaleen amets, nahi eta
bizipen bihurtu daitezkeen.

PAULO ETXEBERRIA RAMÍREZ

Mi primer contacto con la revista Pyrenai-
ca se remonta a los años 80, en los que, adolescente ya, me federo para ir en
verano a Pirineos con mi hermano, mi padre y unos amigos
de este. Antes de ello, me había circunscrito a los montes de
Euskal Herria, con Sorondoa, el club del colegio, y mis padres.



Iratxe Osoro

En este primer acercamiento a la revista, recuerdo leer sobre todo los artículos sobre Pirineos y, curiosamente, la Crónica Ochomilista de Kartajanari, cuyos relatos de expediciones himalayistas quedaban fuera de mi alcance, pero con los que disfrutaba un montón.

Durante la carrera universitaria y los primeros años de trabajo, dejo el monte en segundo plano. En los inicios del auge de la fotografía digital vuelvo a la montaña, a federarme y a recibir la revista.

Publico en ella, por primera vez, un par de colecciones de fotos de ascensiones en Alpes con amigos de Donostia. Pocos años más tarde, Bego y yo viajamos a Escocia y nos planteamos la posibilidad de publicar un artículo en el blog o en la propia revista. Al final nos decidimos por esta última (2017) y acertamos. Aquí puede decirse que comienza todo.

Tras varios años publicando artículos sobre viajes al extranjero y montañas más cercanas, en 2021, Luisa, directora de la revista, contacta conmigo para que entre a formar par-

te del equipo, donde empiezo a desempeñar tareas de edición, que compagino con las de coautor asiduo.

Unos años después, en 2025, Iván, director tras la etapa de Luisa, me propone ser director de la revista, y aquí estoy, con mucho trabajo encima de la mesa pero, al mismo tiempo, lleno de ilusión.

IRATXE OSORO VITORES

Elgoibarren jaio nintzen laurogeiko hamarkadaren amaieran. Bertan sortu nintzen, baita hazi eta hezi ere, larre berdez inguraturata. Gaur egun, irakasle lanetan dihardut AEK euskaltegian. Eguneroko bizitzan, ordea, ikasitakoa desikasten ikasten.

Haurra nintzenetik mendia izan da nire babesleku eta amasgune. Izan ere, txikitatik izan dut geure bazterrekin harremana. Igandero egiten nituen guraso eta lehengusuekin ibilaldiak. Aitak lepo maite zuen Amalurra, hark transmititu zidan naturari zor zaion errespetua. Horretaz gain, makilak landu eta txorien abestiei arreta jartzen irakatsi zidan, maisu bikaina izan zen.

Gaur egun mendiarekin lotura estua izaten jarraitzen dut. Batzuetan, familiarekin edo bakardadean ingurune desberdinak ezagutuz; beste batzuetan, aldiz, ultra distantziako probetan parte hartuz. Baldintza bakarrarekin, ordea: presarik gabe ibiltzea, bideaz eta konpainiaz gozatuz. Ez naiz kronometroen maitale, presio gehiegi eragiten didate. Norbere buruarekin erronkak edukitzea ona dela esango nuke, baina gizarteak inposatzen duen lehiakortasunaren gainetik, geure buruari entzun eta nork bere erara gozatu behar duela uste dut. Garrantzitsua iruditzen zait bizitzak eskaintzen dizkigun uneak zentzuz eta pasioz bizitzea, hauek iheskorrak baitira.

Aldizkariari dagokionez, urtebete daramat Pyrenaicako erredakzio taldean. Ilusio handiz hartu nuen erronka, izan ere, nire bi pasioak uztartzen ditu: mendia eta literatura.

Bestalde, azken urtean Euskal Herriko Mendizaleen Biltzarraren sorreran eta mantentze lanetan parte hartzeko konpromisoa hartu dut. Ordutik, Euskal Mendizale Federazioa eta Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioa elkarlanean ari gara. Nik neuk ez dut ulertzen Euskal Herri zatitu bat; Niretzat gure esparru geografiko eta kulturala berreskuratzea ez da aukera, betebeharra baizik.

IÑIGO JAUREGUI EZQUIBELA

Hay personas que, cuando son interrogadas por las lecturas que marcaron su infancia o juventud, suelen recurrir a las obras escritas por Julio Verne, Emilio Salgari, Karl May o Stevenson. En mi caso, no fue así. La fuente de mi inspiración, las lecturas que alimentaron y poblaron mis fantasías durante aquellos años de formación fueron los artículos que periódicamente se publicaban en la revista Pyrenaica. Una Pyrenaica, por cierto, en blanco y negro y cuyo humilde formato distaba mucho del actual. Todavía conservo alguno de los números que se editaron a lo largo de la década de los 70,

entre 1972 y 1979. A través de sus páginas o gracias a ellas, no solamente descubrí la existencia de otros mundos y otras montañas, sino también una vocación que no he dejado de ejercer a lo largo del último medio siglo y a la que, posiblemente, seguiré aferrándome hasta el final.

Por eso no tiene nada de extraño que, cuando me ofrecieron colaborar con la revista en calidad de miembro del consejo de redacción, apenas tuve dudas. Entonces consideré que mi deber o mi obligación era devolver a Pyrenaica lo que Pyrenaica me había dado, que no podía dejar pasar la oportunidad de servir a esta causa común, a este esfuerzo colectivo que está a punto de cumplir los cien años de existencia. De hecho, sigo pensando lo mismo, los años transcurridos desde el inicio de mi colaboración no han socavado esa voluntad ni la satisfacción que experimenté en aquel momento y que se ha prolongado hasta el día de hoy. Gracias y feliz aniversario.

BEGOÑA FERNÁNDEZ DÍAZ

Allá por el Pleistoceno, cuando los móviles aún no habían cercenado la imaginación infantil, mi hermano y yo nos solíamos adentrar los domingos en los pinares cercanos a La Arboleda, con pistolas de mentira, cartuchera, y todo el *atrezzo*, para jugar a indios y vaqueros mientras los aitas descansaban (mirándonos de reojo).



Iñigo Jauregui

La adolescencia y sus cuitas me alejaron del monte durante unos años, pero un par de visitas a los Picos de Europa durante un verano en Asturias bastaron para volver a ponerme en mi sitio siendo veinteañera, y desde entonces

Begoña Fernández





Ioritz Gonzalez

mi relación con la montaña no ha hecho sino crecer y enriquecerse.

Como casi todo el mundo, empecé a subir montes y anotarlos, pero poco a poco fueron otras cosas las que me en-

gancharon. Recuerdo la ilusión de comprar aquellos primeros (bellísimos) mapas en papel y usarlos para orientarme, luego el primer GPS, y comprobar la libertad que me daba desenvolverse con soltura en el medio. Empecé a planificar rutas no tan trilladas y a moverme un poco más lejos, también al extranjero.

Empezar a escribir sobre la montaña fue un paso natural, ya que soy ávida lectora y he coqueteado con la escritura desde que tengo uso de razón. Empecé con fichas de Mendi-kat, luego el primer artículo en Pyrenaica (2017), entrada en la redacción de la revista en 2019, y publicación de un par de guías en SUA más recientemente junto con Paulo.

También forman parte de mis rutinas las salidas de mi club, el Bilbao Alpino. Colaborar en la organización de la actividad del club es otra estupenda forma de divulgar el montañismo.

IORITZ GONZALEZ LERTXUNDI

Biologiako ikasketak egin nituen, eta gaur egun irakasle lane-tan dihardut Bigarren Hezkuntzan, Zientzia arloan. Nire bizi-tza txiki-txikitatik egon da mendiko jardueretik estuki lotu-rik, eta gaztetan eskalatzen hasi nintzenetik pasioz bizi izan dut; dagoeneko hogeita hamar bat urte daramatzat eskala-tzen. Kirol-eskalada zale amorratua izanik, ohikoa da Euskal Herriko zenbait hormetan ni eskalatzen ikustea, eta horrez gain, nazioartean ere hainbat lekutan eskalatu izan dut.

Betidanik maitatzen eta miresten dut mendia, gurasoekin eta lagunekin mendi-txangoak egiten hasi nintzenetik; egun ere, eskalatzera ez bada, oinez edo beste jardueraren bat egitera joaten naiz aukera dudanean. Mendira joateko eta eskalatzeko grinaz gain, zenbait hedabidetan idazten hasi nintzen duela urte batzuk, bai iritzi artikulua zein mendiko jardueri buruzkoak, harik eta 2020an Pyrenaicako erre-dakziokide gisa lanean hasi nintzen arte. Geroztik, zenbait artikulua eta elkarrizketa argitaratu izan ditut aldizkarian, be-reziki eskaladarekin loturikoak.

Gaur egun, Pyrenaicako eskalada arloko artikuluen ar-duraduna izateaz gain, aldizkarirako idazten duten hainbat mendizaleri laguntza eskaintzen diet, artikulua bideratuz edota zuzenduz. Halaber, Euskal Mendizale Federazioko aldizkaria izaki, euskaraz idaztea eta argitaratzea ezinbes-tekoa dela deritzot. Konbikzio horretatik, 2023an liburu bat euskarara ekarri nuen: Reinhold Messnerren *Zain dezagun mendia*. Funtsean, liburuaren izenburuak deskribatzen du mendiarekiko sentitzen dudana.

IÑIGO SANTXO

Aldizkariaren ibilbidea luzea bada ere, estimu handiz oroita-razten ditut gaztaroan Munarrikolanda mendi taldean oste-gunetan biltzen ginenean nola errepasatzen genituen bertan agertzen ziren urruneko eta hurbileko balentriak. Esaterako,

oso presente daukat 1994ean Felix Iñurrategik K2 mendian egindako igoeraz idatzitako kronika. Bertan grazia eta umore handiz, kontatzen zuen nola lo kuluxka artean Kike de Pablo eta berak burutu zuten gailurrerako azken tartea. Orduan gaztea nintzen oso, baina oroitzen naiz irakurketarekin.

Badira hiru urte inguru Ivanek deitu ninduela, ikus entzunezko atalerako pertsona bat behar zela eta nigan pentsatu zutela. Suposatzen dut gainontzeko kideak bezala, askorik pentsatu gabe emandako baiezkua izan zela nirea. Proiektu handi honetan parte hartzearen ohoreak, eskatzen duen dedikazioa baino handiagoa dela jakitearen baiezkua zintzoa.

Aurretik sekula ez idaztearen esperientzia faltak izutzen ninduen. Hala ere, testuak mimoz prestatzen saiatzen naiz, garai berriek eskatzen duten modalitate eta joerak jasotzeko asmoz, beti ere, transmititutako baloreak oinarritzat hartuz.

Gauzak horrela, istorio luze eta aberatsa duen proiektu erraldoi honetan murgilduta nabil, etorriko denari ilusioz begira.

FERNANDO J. PÉREZ

Nací en 1965, apenas un año después de que alguien decidiera que subir los 14 ochomiles era una buena idea. No sé si fue coincidencia o destino, pero lo cierto es que desde pequeño ya apuntaba maneras... al menos en lo de mirar hacia arriba.

Aunque nací en Bilbao, me crié en Zeberio, rodeado de verde, barro y libertad. Allí aprendí a querer la naturaleza sin necesidad de grandes discursos. Mi primer recuerdo

Fernando J. Pérez



Iñigo Santxo

montañero es, literalmente, una fotografía: yo, con apenas cinco años, en el Pagasarri junto a mi padre. Probablemente no era consciente de nada, pero algo debió de quedar dentro de mí, porque desde entonces no he dejado de subir y bajar montes.

Con el tiempo, esa afición se convirtió en algo más serio. El periodismo se cruzó en mi camino y, gracias a El Correo, logré algo que todavía hoy me parece un lujo: hacer de mi pasión mi profesión. He recorrido y escrito sobre más de mil montes y sus historias. Relatos que huelen a tierra y roca, a bosques... y a esfuerzo.

Mi profesión me ha permitido otro lujo: conocer a algunos de los principales alpinistas vascos y acompañar a varios de ellos en algunas de sus expediciones a ochomiles. Mientras ellos los contaban por cimas, yo lo hacía por campos base. Una experiencia que me permitió descubrir y entender que hay montañas que se escalan con las piernas, pero también con el corazón y la cabeza.

Sin embargo, pasados los años, muchos años, quiero creer que en el fondo sigo siendo aquel niño con pantalón corto y sonriente del Pagasarri, sólo que con más arrugas y más historias, pero la misma ilusión por ascender a la próxima cumbre.

UNA MIRADA AL PASADO

Durante unas pocas páginas vamos a montarnos en la máquina del tiempo para hacer un viaje al pasado de nuestra querida revista. Dada la desmesurada tarea de rebuscar entre los miles de artículos publicados hasta hoy, vamos a ajustar el reloj de la máquina en puntos concretos, elegidos sin otra intención que la de curiosear en la hemeroteca y entresacar una muy pequeña muestra representativa de varias épocas.

La hemeroteca online nos permite acceder a todos los contenidos publicados en Pyrenaica. Podemos leer cada revista entera, en un formato digital muy accesible y también es posible ver y descargar artículos sueltos en formato pdf. Además, disponemos de herramientas de búsqueda (sencilla y avanzada) si nos interesa acceder rápidamente a artículos sobre, por ejemplo, un monte concreto, un país o una disciplina deportiva.

En cada uno de los artículos que reproducimos se muestra una primera página e invitamos a seguir leyéndolo en la hemeroteca utilizando un enlace QR (si tenemos delante la revista en formato

papel y queremos acceder con el móvil al contenido) o uno textual (adecuado para abrirlo si utilizamos una aplicación informática para visualizar el formato pdf).

Tras la lectura de estos pocos artículos comprobaremos que las maneras de narrar y el formato de la revista han evolucionado en este largo período de tiempo. Aunque si vamos al fondo de la cuestión montañera, las cosas quizás no hayan cambiado tanto...

Acceso a la hemeroteca: <https://pyrenaica.emf.eus/es/hemeroteca/>



Hemeroteca

[Ver todas la revistas](#)[\(1980-2025\)](#)[\(1967-1977\)](#)[\(1950-1966\)](#)[\(1935-1936\)](#)[\(1926-1930\)](#)

Buscar artículos

[Búsqueda avanzada](#)

Pyrenaica 301 (2025)

Pyrenaica 300 (2025)

Pyrenaica 299 (2025)

Pyrenaica 298 (2025)

Pyrenaica 100

Pyrenaica

Pyrenaica

Pyrenaica

SIERRA NEVADA, MULHACÉN, VELETA

Andrés Espinosa 1927

I - GRANADA

Agosto, día 28

A las nueve y media de la noche llego a Granada, después de un bello recorrido a través de los campos manchegos y andaluces. ¡Qué impresión de paz ha producido en mi alma esta ciudad, soñadora y misteriosa...! La quietud y el silencio de sus calles, tenuemente alumbradas por el débil parpadeo de unos faroles de gas, me hacen soñar, y veo a los moros legendarios, envueltos en sus jaiques, desgranar romances de amor y pasión a unos ojos de hurí que fulguran tras la reja florida.

Roto el encanto, encamino mis pasos a una fonda (La Española), recomendada por un compañero de viaje. Su entrada es pintoresca en extremo; vivos azulejos tapizan el suelo; cubren sus paredes llamativos carteles de fiestas y todo ello lo preside, en irreverente mezcolanza, la imagen de N.^a S.^a de las Angustias, patrona de la ciudad.

Día 29

II - CAMINO DE LA SIERRA

El repique de las campanas, anunciando la festividad de S. Pedro, alegra el alborear de este día. Por desconocimiento de las calles de la población y la socarronería de las gentes, que me daban rutas falsas, riéndose de la gracia, pierdo el tranvía de las siete y



media, viéndome obligado a esperar al siguiente.

Son las nueve y media cuando monto en el eléctrico, que, a una marcha muy suave va atravesando un valle, cuyas laderas están cubiertas de higueras chumbas y pitas amarillean las montañas, reseca por el sol y se advierte en sus huertas gran variedad de cultivos; pasamos por túneles y barrancos muy pintorescos y agrestes, que son como heraldos de los bravios y gigantescos macizos que nos esperan.

El día está espléndido, completamente despejado.

Por Güejar-Sierra se ven vertientes cubiertas de arbolado (castaños, ál-

mos, cerezos...). El famoso río Genil se desliza por estos valles a los que presta fresca y lozanía con sus limpias y bulliciosas aguas.

III - SAN FRANCISCO Y EL REFUGIO ALPINO

A las once termina el tranvía su recorrido y empieza la jornada de los pies. El Padre Febo deja sentir su influencia más de la cuenta en estas encañadas, huérfanas de aire; hay carretera hasta el Hotel Sierra Nevada (paso de la excursión), mas como da tantas vueltas, aprovecho unos atajos que en una hora me conducen hasta el fin de la misma. Ignoro el itinerario a seguir para subir a los picos, y por si me veo en la precisión de pasar la noche en el Hotel, pido precio de estancia: 30 pesetas, que me parece excesivo y me encamino a una casa baja, llamada Ventorrillo de Sierra Nevada, que está enfrente del Hotel; en dicho Ventorrillo decido quedarme a comer y dormir si fuese necesario.

Entretanto, procuro informarme de las rutas, horas y todos los detalles, para efectuar lo mejor posible la marcha, pero en todos los sitios mis preguntas obtienen contestaciones irónicas; de esto deduzco que son muy pocos los que han escalado la altura; a algunos les parecía imposible que pudiera hacer la marcha a pie y un «optimista» me aseguró que tardaría tres días en pisar la cumbre.

Para seguir leyendo...

https://pyrenaica.emf.eus/wp-content/uploads/hemeroteca/006/pdf/pyrenaica_006_03.pdf



CARA NORTE DEL TAILLON

Elías Ruiz de Alegría 1959

Serían las tres, cuando con un sol tórrido abandonamos Ordesa con dirección a Sarradets. Poco a poco, vamos dejando atrás los grupos de turistas que, como liebres, surgen bajo las matas y vamos subiendo por el tupido bosque de Cotatuero. Por los escasos claros vemos cómo suben hacia el cielo las verticales paredes de la Fraucata y Gallinero cerrándonos el paso por todas partes y formando una inmensa cazuela donde se respira un aire denso de polvo y resina. Suavemente nos vamos sumiendo en un extraño sopor en el que nuestras piernas andan mecánicamente mientras nuestras mentes sueñan con ríos y piscinas, hasta que, nuestro sueño


se convierte en realidad, un soplo de aire fresco viene a refrescar nuestras gargantas, mientras un sordo rumor acaricia nuestros oídos sonando a música celestial. Es la cascada que se desploma de la cabecera del circo y que saltando de resalte en resalte, cambia de aspecto en cada choque, espectáculo maravilloso, que constituye por sí solo motivo para una excursión.

El camino desaparece en sus inmediaciones y hay que tomar un sendero que sube hacia la izquierda en agudos zig-zags, por el que caminamos con el corazón oprimido por la leyenda de las clavijas de Cotatuero. Por fin llegamos a ellas; una profunda chimenea

nos muestra sus fuertes grampillones como pelos que surgiesen de la roca, comenzamos a contarlos, uno dos, tres, diez..., veinte, perdemos la cuenta, lo menos son cuarenta, pero dan una sensación de seguridad tal, que nos olvidamos del profundo vacío que hay a nuestros pies.

